

A stylized illustration in shades of blue and red depicting a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing hats or headgear. The background is a gradient of blue, and there are thick, flowing red and blue lines overlaid on the scene.

Eragin politikorako
eredu dokumentua

Documento marco
para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Financia / Diru laguntzailea:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Edita / Argitaratzailea:



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Araba

Casa de Asociaciones Simone de Beauvoir
San Ignacio de Loyola 8 - 3º - oficina 1
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel./Fax: 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Alameda Urquijo 30, Galerías Urquijo, ofic. 8
48010 Bilbao
Tel./Fax: 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Avenida Pasajes San Pedro 13, trasera
20017 Donostia
Tel./Fax: 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org
www.ongdeuskadi.org

Gardentasun eta kontu emate proposamen bat euskal lankidetzaren publikorako



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2012an Euskadiko lankidetza publikoak heldutasuna iritsi du. Lan esperientzia interesgarria pilatu du eta nabarmen garatu da bai diskurtsoaren aldetik, bai ikuspegi instituzionaletik. Euskal lankidetzarako funtsezkoak diren hiru lege giltzarri onartu dira: Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legea; abenduaren 28ko 14/2007 Legea, Herrialde Pobretuekiko Elkartasun Gutuna ere deitzen dena, eta ekainaren 19ko 5/2008 Legea, zeinaren bitartez sortu zen Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia. Bestalde, euskal lankidetza publikoak baliabide eta ahalgin asko bideratu ditu plangintza lanera, bai Eusko Jaurlaritzan mailan, bai aldundi eta udal mailan.

Euskal lankidetza publikoa heldutasunerantz aurreratzen ari da oinarri sendo samar horietatik abiatuta. Kalitatea eta eraginkortasuna ditu helburu, eta hala dela ikusten ari gara, gero eta argiago, nazioarteko lankidetza zereginetan parte hartzen duten erakunde publikoak garatzen ari diren diskurtsoetan, hain zuzen ere estatuko beste lankidetza politika batzuetan eta erakunde multilateraletan ere gertatzen ari den bezala.

Euskal lankidetza publikoaren kalitate eta eraginkortasunaren gaineko eztabaida arrazoitu eta hausnartuan aurrera egiteko ezinbesteko baldintza da gardentasuna eta kontu ematea, ez bakarrik lanak ongi fiskalizaturik eta herritarrek ongi zainduta egiten direla bermatzeko, baina baita ere baldintza hobek sortzeko garapenerako nazioarteko lankidetza politikari buruzko eztabaida publiko baterako. Parte-hartze ariketa horretarako datuak behar dira, baina datu eguneratuak eta homogeneous konparagarriak izan daitezten bai erakunde publiko ezberdinen artean eta bai erakunde barruan, eta lagundu diezaguten euskal esparruko lankidetza eta garapen politika publikoari buruz eztabaidatzen. Datuak behar dira euskal lankidetza publikoaren benetako egoera ezagutzeko eta baita ere lagundu diezaguten kalitateari eta eraginkortasunari buruzko eztabaida bideratzen geure errealitatetik abiatuta, geure lankidetzaren ezaguerri eta ahalmenetara egokituta. Kontu ematearen beharra eztabaida eta debate publikoari laguntzeko tresna bat bezala ulerturik eskatzen dugu gutxieneko adostasun bat lortzea gardentasunari eta kontu emateari buruz, eskakizun hori berdina izan dadin garapenerako nazioarteko lankidetza lanean inplikaturako erakunde publiko guztientzat.

Horretarako, proposatzen dugu datuak publikoak izatea, web bidez irisgarriak, eta funtsen erabilera zehatza jakin nahi duten guztiak erraz erabiltzeko moduko formatu batean emanak. Lan-lerro hori bat dator gobernua erakunde irekien alde egiten ari den ahaleginarekin. Proposatzen dugu aprobetxatu dadila Kanpo Arazoetako eta Lankidetza Ministerioaren Nazioarteko Lankidetzaren Idazkaritzaren Plangintza eta Ebaluazio Politiken Zuzendaritza Orokorra (PEPZO/DGPOLDE) emandako datuekin Ekonomia Lankidetza eta

Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Garapenerako Laguntzarako Batzordeak (GLB/CAD) urtero egiten duen ariketa (datuok azkenean Nazioarteko Lankidetzako Urteroko Planen -NLUP/PACI- jarraipen dokumentuetan jasota geratzen dira) eta ondokoak identifikatu daitezela:

Hitz emandako dirua vs. ordaindutako zenbatekoa

Adierazle hau oso garrantzitsua da ikusteko zein den gure gaitasun kolektiboa lankidetzarako hitzartzen ditugun diruak helburu horretan erabiltzeko eta, hortaz, gure plangintzak hobeto taxutzeko. Eskatzen dugu nazioarteko lankidetzarako agintzen den dirua helburu horretarako agertu dadila Legebiltzarrean, batzar nagusietan eta udaletan urtero eztabaidatzen diren aurrekontu lege edo arauetan.

Bestalde, proposatzen dugu *ordaindutako zenbatekoa* kontzeptua GLB/CADek eta PEPZO/DGPOLDEk erabiltzen dituzten kontabilitate irizpideetara egokitu dadila.

Gastua finantzaketa motaren arabera: zuzeneko lankidetzak, GKEaren bidez edo bide multilateralak erabiliz

Beharrezkoa iruditzen zaigu ordaindutako funtsak bereizten hastea kasu bakoitzean erabilitako finantzaketa motaren arabera. Horretarako, hobeto zehaztu behar da zer den zuzeneko lankidetzak eta zer den zeharkako lankidetzak. Batetik, proposatzen dugu zuzeneko lankidetzak deitzea Eusko Jaurilaritzak, foru aldundiek eta udalek ekintza humanitario, lankidetzak eta garapenerako hezkuntza arloan zuzenean ordaindutako funtsei. Bestalde, proposatzen dugu elkarrengandik bereiztea GKE bidez ordaindutako funtsak, gizarte zibilaren beste erakunde batzuen bidez ordaindutakoak (esaterako, gizarte mugimenduen bidez eralgia) eta nazioarteko erakundeen bidez ordainduak, zehaztuz deialdi publikoak diren ala ez.

Gastua lankidetzak motaren arabera: ekintza humanitaria, garapenerako lankidetzak eta garapenerako hezkuntza

Uste dugu beharrezkoa dela bereiztea, bai konpromisoetan eta bai gastuetan, garapenerako nazioarteko lankidetzak arloko gastuan dauden hiru atal nagusi horiek: ekintza humanitaria, garapenerako lankidetzak eta garapenerako hezkuntza.

Administrazioko gastua

Zenbateko honetan sartzen dira euskal erakunde publikoek sostengu ekintzetan egiten dituzten gastu guztiak. Kontzeptu honen barruan sartzen dira aholkularitzak gastuak

eta baita ere giza baliabideen gastuak. Printzipioz, proposatzen dugu erabil dadila GLB/CADean finkatutako irizpide bera eta irizpide berriak gehitu daitezela euskal lankidetzaren publikoaren berezitasunen arabera.

Proiektuen sailkapen sektoriala Creditor Report System (CRS) kodifikazio sistemari jarraituz

Nazioarteko lankidetzarako proposatzen dugu CRS kodifikazioa erabil dadila GLB/CADean. Garapenerako hezkuntza arloko proiektuetarako geure proposamena egingo dugu, iruditzen baitzaigu CRS kodifikazioa erabat eskasa gertatzen dela atal horretarako. Beraz, hauxe proposatzen dugu:

1. Proiektu mota: 1. prestakuntza, 2. ikerketa, 3. sentsibilizazioa, 4. baliabide didaktikoak, 5. dokumentazio zentroak, 6. eragin politikoa, 7. sareak eta aliantzak, 8. erakundeen sendotzea, 9. diagnostikoa, 10. ebaluazioa-sistematizazioa eta 11. beste batzuk.
2. Gaiak: 1. Milurteko Garapen Helburuak, 2. hiritartasun globala, 3. ekonomia solidarioa eta finantza iraunkorrak: banka etikoa eta finantza sozialki arduratsuak, 4. baloreetan oinarritutako hezkuntza, 5. giza eskubideak, 6. ingurumen iraunkortasuna, 7. herri indigenak, 8. emakumeen jabeak, 9. migrazioak eta kulturartekotasuna, 10. komunikabideak, 11. artea eta kultura, 12. herrialdeen ezagutza, 13. bidezko merkataritza eta elikadura subiranotasuna eta 14. beste batzuk.
3. Adin taldeak: 1. haurtzarora: 3-12 urte, 2. gazteria: 13-18 urte, 3. pertsona heldu gazteak: 19-30 urte, 4. pertsona helduak: 31-59 urte, 5. pertsona nagusiak: 60 urte edo gehiago eta 6. adin guztiak.
4. Hezkuntza esparrua: 1. hezkuntza formala, 2. hezkuntza ez formala eta 3. hezkuntza informala.
5. Lehenetsitako talde bereziak: 1. emakumeak, 2. migratzaileak eta 3. pertsona ezgaituak.
6. Proiektuaren jarraikitasuna: zenbat urte dituen proiektuak.

Azkenik, proposatzen da zeharkakotasunaren eztabaidan sakontzea, bai proiektu indibidual bakoitzaren mailan, bai maila agregatuan, erakunde guztiek aurrerapausoak eman ditzaten norabide horretan.

Aurrerapausoak genero ekitatearen eta emakumeen jabeakentzaren aldeko konpromisoetan

Baita ere azpimarratu nahi dugu euskal erakundeen konpromiso gero eta handiagoa genero ekitatearekin eta emakumeen jabeakentzarekin, azken urteetako lankidetzaren

publikoko araudi guztian jasota dagoen konpromisoa hain zuzen. Bi neurri zehatz proposatzen ditugu:

- Informazio gehiago emakumeen jabeakuntzarako bereziki bideratutako proiektuen kopuruari eta horien zenbatekoari buruz, bai hezkuntzarako lankidetzan eta bai garapenerako sentsibilizazioan.
- Gardentasun handiagoa garapenerako lankidetzan eta hezkuntzan eta sentsibilizazio proiektuetan genero ikuspegiaren betekizuna baloratzeko baremazio irizpideetan eta aplikazioan.

Bi neurri horiei gehitu beharko litzaieke aurreko puntuan zehaztutako sailkapen sektorialeko proposamenaren sartutako GLB/CADeko genero markatzailea aplikatzea, eskurazateko nazioartean onartutako konparaziozko neurgailu egoki bat.

GGKEek itzulitako diru-laguntzen zenbatekoa

Adierazi behar da GGKEek erakunde publikoei eskatutako diru-laguntzetatik zenbat diru itzultzen duten proiektuak egin gabe geratzeagatik eta zertarako erabiltzen duten erakundeek itzulitako diru hori.

Gure proposamenaren eskari zentrala da berdindu dadila lankidetzan funtsen kontuak emateko modua, lehenesten ari diren sektoreak, egindako plangintzarekiko koherentzia eta lan hori modu bateratuan egin dadila. Baita ere eskatzen dugu datu horiek guztiak jarri daitezela web orri batean edonork ikusteko moduan.

Euskal lankidetzan gisa aukera dugu berrikuntzak sartzeko gardentasun mekanismoetan eta gure erkidegoko dohaintza-emailen nagusien arteko koordinazioa handitzeko. Horregatik, ezin dugu ahaztu kontuak emateko erantzukizun partekatua ez dela mugatu behar arlo ekonomikora, baizik eta tresnak prestatu behar direla (informazio sistemak eta txosten publikoak, ebaluazioak, lorpenen neurketak, eta abar) ikusteko, prozesu parte-hartzaile eta aholku-emileen bidez, nola betetzen diren estrategiak, helburuak eta emaitzak.

Badira kontuan hartu beharreko beste kontu batzuk ere:

1. Plangintzak jarraipen eta ebaluazio sistema egoki eta neurgarrien bitartez zehaztu.
2. Aldizkako kanpo ebaluazioak edo ebaluazio mistoak zehaztu (gutxieneko epeak finkatu).
3. Informazio publikorako koordinazio guneak sortu, lanean jarri eta edukiz jantzi, adibidez, lankidetzan kontseiluak.

4. Funtsak banatzeko eta erabakiak hartzeko prozedura publiko eta gardenak finkatu erakunde guztietan (esaterako, onartutako proiektuen baremazioen emaitzak argitaratuta).

Laburtzeko, uste dugu gure proposamena sinplea dela. Kontua ez da lan gehiago gehitzea lehengoari, baizik eta hobeto baliatzea lehendik daukaguna, jada asmatuta dagoena eta gutxi-asko ondo funtzionatzen duena.